



Ereduzko oroimenak

Gainditze-istorioak: jarduerak, jarrerak eta indarkeriazkoak ez diren balioak



EDUKIA

<u>SARRERA</u>	3
<u>EZARPEN-EREMUA</u>	5
<u>OINARRIZKO GAITASUNAK</u>	6
<u>XEDE NAGUSIAK</u>	8
<u>EDUKIAK</u>	9
<u>PEDAGOGIA-IBILBIDEA</u>	10
<u>METODOLOGIA</u>	11
<u>BALIABIDE DIDAKTIKOAK</u>	12
<u>EBALUAZIO-IRIZPIDEAK</u>	13
<u>UNITATE DIDAKTIKOA</u>	13
<u>EREDUZKO OROIMENAK, GAINDITZE-ISTORIOAK: INDARKERIARIK GABEKO JARDUERA, JARRERA ETA BALIOAK</u>	13
<u>ASKATASUNEN MUGAKETA ETA ERREPRESIOA, INDARKERIA KOLEKTIBOA DAGOEN TESTUINGURUETAN</u>	17
<u>LEHENENGO BLOKEA - BARKAMENA</u>	21
<u>BIGARREN BLOKEA - ELKARTASUNA</u>	25
<u>LAUGARREN BLOKEA – DESOBEDIENTZIA ZIBILA</u>	35

SARRERA

Gazteekin hausnarketak eratzeko tresna pedagogikoa da unitate didaktiko hau, eta gizarte-errepresioa eta indarkeria kolektiboa dauden testuinguru eta egoeren aurrean modu propositibo nahiz sortzailean eta bizikidetzta baketsuaren alde erantzuteko aukeren inguruan hausnartzea da xedea.

Gizon-emakume anonimoen bizi-istorioetan oinarritzen dira materialok. Bizi-istorio horiek, historia ofizialaren narrazioetan ageri ez badira ere, aitortza merezi dute; izan ere, zoritxarra bizi arren, modu propositibo eta solidarioekin jokatzera erabaki zuten.

Alfredo, Florentino, María Juana, María Dolores eta José Ignacioren istorioak Gerra Zibilean, diktadura frankistan eta Bigarren Mundu Gerran kokatzen dira; hots, gizarte-errepresioa handia zen eta gizarte zibilaren giza eskubideen urraketa latzak egin ziren aldietan.

Beren istorioei esker, testuinguru zakarra edukita ere bizitzaren eta adiskidetzaren alde joka daitekeela uler dezakegu; indarkeriarik gabeko jarrera, jokaera eta balioak eduki ditzakegula, alegia.

Euskadiko memoria historikoari ekarpena egiteko helburuz aurkezten ditu Bakeolak material pedagogiko hauek, eta, bizikidetzta baketsuaren aldeko jarrerari eta jokaerari aitortza eginez, baita horiek baloratuz ere, indarkeria ez errepikatzen eta bake-kultura eraikitzen lagundu nahi du.

EZARPEN EREMUA

Hezkuntza-zentroetako irakasleentzako eta hezkuntza ez-formaleko elkarreetako eta guneetako hezitzaileentzako tresna dira material pedagogiko hauek.

Unitate didaktikoak **lau jarduera-bloke** dauzka, elkarrekin edo bananduta landu daitezkeenak. Pertsonaia batek testuinguru jakin batean eduki dituen jarreraren, jokaeren eta balioen hausnarketa kritikoari heltzen dio bakoitzak.

Solte eta modu independentean landu daitezke blokeak, edo, bestela, guztiak landu daitezke, prozesu batean. Erraz moldatu ahalko zaizkie zentro edo talde bakoitzaren programazioei, hezkuntza-sistemaren oinarrizko gaitasunekin harremana daukate-eta.

Bereziki, tutoretza-, bizikidetz- eta etika-programetara edo antzekoetara egokitu ahalko dira; hala ere, curriculumeko beste arlo batzuetan ere txertatzeko aukera egongo da, hala nola hauetan: euskara, gaztelania, historia, ingurunearen ezagutza edo aisialdi-elkarreek nahiz -taldeek hiruhilekoetarako programatzen dituzten jarduerak.

OINARRIZKO GAITASUNAK

Hizkuntza-komunikazioa:

- Kontzeptuak, datuak eta pertsonaia historikoak argitzea.
- Gaiaren beraren oinarriko hiztegi espezifikoa lortzea.
- Jorratutako gaien inguruan argudiatzea eta eztabaidatzea.
- Esaldiak eta kontzeptuak lotzea.

Ezagutza eta mundu fisikoarekiko elkarreragina:

- Egitateak gertatu ziren tokiak mapan aurkitzea eta kokatzea.
- Informazioa tratatzea eta gaitasun digitala eskuratzea:
- Alderdi garrantzitsu eta ez-garrantzitsuen artean bereiztea, loturak egitea, iturriak alderatzea.
- Internet bidez lortutako informazioa bilatzea, hautatzea eta aztertzea.
- Informazioa modu kritikoan sartzeta eta aztertzea.

Ikasten ikastea:

- Hainbat motatako arazoiketak aplikatzea eta kausa anitzeko azalpenak bilatzea.
- Informazio-iturriak ezagutzea eta hainbat bitartekoren bidez eskuratutako informazioa biltzea, sailkatzea eta aztertzea.
- Lan egiteko ohiturak eskuratzea eta denbora antolatzen eta banatzen ikastea, kontsultak egitea eta abar.

Autonomia eta norberaren ekimena:

- Askotariko gaiei buruzko informazioa bilatzea.
- Taldeko eztabaidak eta lanak egitea, aztertzea, planifikatzea, jardutea eta egindakoa berrikusteko eta ondorioak ateratzeko moduan.

Soziala eta herritarra:

Gaitasun hau oso garrantzitsua da, gazteak herritar arduratsu eta aktibo bihurtzea ahalbidetuko baitu. Era berean, barne hartzen ditu bai herritarren eskubideak eta betebeharrak, bai balio demokratikoekiko errespetua, eta garrantzia ematen die elkartasunari, tolerantziari eta gizarte demokratiko batean parte hartzeari.

Europako Parlamentuak (2005) "gaitasun sozial eta herritarrak" jasotzen zituen, eta honela definitzen:

"Gaitasun hauek gaitasun pertsonalak, pertsonen artekoak eta kulturartekoak hartzen dituzte barruan, eta pertsonak bizitza sozial eta profesionalean modu eraginkor eta eraikitzailean parte har dezaten prestatzen dituzten jokaera guztiak biltzen dituzte; batez ere, gero eta dibertsifikatuagoak diren gizarteetan, eta, hala badagokio, baita gatazkak konpontzeari begira ere. Gaitasun herritarrak hiriko bizitzan benetan parte hartzeko prestatzen ditu pertsonak, kontzeptu eta egitura sozial nahiz politikoak ezagutzeari esker, edota parte-hartze aktiboko eta demokraziako konpromisoari esker".

Material pedagogiko hauek, beren garapen eta ezarpenarekin batera, parte-hartzaileek gaitasun hau eskuratzeko helburua daukate; hau da, gazteek gaitasun sozial eta herritarra izan dezatela da asmoa.

HELBURU OROKORRAK

- Gizarte-errepresioa zegoen eta eskubideak urratzen ziren testuinguruetan indarkeriarik gabe jardun zuten pertsonen jarduerak eta jarrerak aitortzea eta baloratzea.
- Memoria historikoa berreskuratzeko baliabideak ematea hezkuntza-komunitateei eta herritarrei, oro har.
- Pertsona anonimoen jarduerak, jarrerak eta balioak ikusgarri egitea, bake-kulturaren eraikuntzari egin zizkioten ekarpenak aitortuz.
- Indarkeria ez errepikatzeko bermeak lantzea, xede sozial bat lortzeko bitarteko gisa.
- Memoria historikoa berreskuratzea, gertatutako askotariko urraketak aitortuz eta baloratuz.
- Adiskidetzeta lantzea eta biktimei arreta berezia ematea, jasandako indarkeriaren lekuko moralak diren heinean.
- Gure iraganean zer gertatu zen zabaltzea eta gizarteratzea, eta giza eskubideen sustapenarekin lotzea gertaera horiek.

EDUKIAK

Eduki kontzeptualak

- Espainiako eta Europako historiaren barruan aztertu diren egitateak testuinguruan jartzea.
- Indarkeriarik eza eta bake-kulturen eraikuntzaren aldeko balioak eta jarrerak kontzeptualizatzea.

Prozedurazko edukiak

- Askotariko informazio-iturriekin lan egitea.
- Datuak biltzea, hautatzea eta ordenatzea.
- Norberaren ideiek eta iritziak adieraztea eta hedatzea.
- Historiara bizi-istorioen bidez hurbiltzea.
- Gertakari historikoen kausak eta ondorioak aztertzea.

Jarrerazko edukiak

- Jarrera eta jokaera oldarkor eta bidegabeak arbuiatzea, horiek sorrarazten duten kaltea aitortuta.
- Gizarte-gatazka dagoen egoeretan indarkeriaz bestelako moduetan erantzuteko prestutasuna edukitzea.
- Egitate edo egoera beraren aurrean egon daitezkeen ikuskera ezberdinak aitortzeko eta baloratzeko interesa edukitzea.
- Pertsonen arteko harremanetan edo biktimekiko harremanetan jarrera harkorra, laguntzailea eta tolerantea edukitzea.
- Gure gizartearen funtzionamendua erregulatzen duten mekanismoekiko eta esparruekiko interesa erakustea; zehazki, jarrera demokratikoekikoa eta giza eskubideekikoa.
- Elkarrizketa eta jarrera zein jokaera sortzaile eta propositiboak baloratzea eta aitortzea gatazkak konpontzeko bitarteko gisara.

IBILBIDE PEDAGOGIKOA

Unitate didaktikoek ibilbide honi jarraitzen diote beren jardueretan:

1. **Gertakariak ezagutzea eta aztertzea.** Gizarte zibileko gizon-emakumeek testuinguru zehatzetan eduki dituzten ikuspegietatik begiratzea historiari.
2. **Gertakarien ikuseremua zabaltzea.** Asmo politikodun indarkeriak pertsonen bizitzetan eta komunitateetan duen eragina dimentsionatzea.
3. **Sentimenduen adierazpena bideratzea.** Sentimenduak eta emozioak adierazten laguntzea eta enpatia lantzea, bestearen tokian jartzeko gaitasuntzat hartuta hori.
4. **Biktimizekiko elkartasun-konpromisoa garatzea.** Giza eskubideen edozein urraketa-modu arbuiatzea eta justiziarekiko eta indarkeriarik ezarekiko konpromiso pertsonala indartzea.

Material pedagogiko hauekin, hurbilagotik ezagutuko dira bizitako egitateak eta biktimizazioak, eta kontzientzia-aldaketa ahalbidetuko da bizitako bidegabekeriekiko sentikortasuna handiagotzearekin batera.

METODOLOGIA

Planteamendu metodologiko hauei heltzen die unitate didaktikoak:

- Material pedagogikoak ezartzean, gazteek parte hartzea sustatzen da, hausnarketa kritikorako eta eztabaidarako guneak eskaintzen baitituzte.
- Hartzaileei orientabideak ematen zaizkie, planteatutako une eta testuinguruetan gertatu ziren gatazkei indarkeriarik gabeko erantzuna emateko xedez abiarazi ziren ekimenak aurkitu, ikertu eta ezagut ditzaten.
- Talde osoaren parte-hartze aktiboa sustatzen duen metodologia sozioafektiboa erabiltzen da. Horren ondoriozko ikaskuntzak osagai kognitiboak, emozionalak eta praktikoak biltzen ditu.
- Ebaluazio jarraitua egiten da, programa jasoko duten taldeen errealitateari egokituko zaizkien aldaketak egin ahal izateko.
- Taldearen, ikasleen eta hezitzaileen ebaluazioa sustatzen da.

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Liburuak ez dira nahikoa irudiari eta teknologiari ohituta dauden ikasleak eta gazteak motibatuzko. Pertsona dinamiko eta parte-hartzaileak nahi baditugu, ezaugarri horiek bultzatuko dituzten baliabideak erabili behar dira. Funtsezkoa da ikasleak beren ikaskuntza-prozesuan sartzea.

Beren arreta hobeto erakarriko da, askotariko materialak (hala nola argazkiak eta bideoak) erabiltzen badira. Material horiekin, bide emango zaio ikasleak inplikatu eta sentibilizatzeari. Gainera, ezin hobeak dira testuinguru historikoa azaltzeko, ikasleek errealitatearen gaineko ideia zehatza egingo baitute horiekin. Horrela, hausnarketa eta eztabaida sustatzen dira.

Internetekin ohituta dagoen belaunaldikoak dira ikasleak; hortaz, baliabide hori ez da alferrik galdu behar, hainbat jarduera komunikatibo lantzeari dagokionean.

Ikaslea zenbat eta sartuago egon bere ikaskuntza-prozesuan, orduan eta hobeak izango dira emaitzak; beraz, baliabide guztiak gutxi dira ikasleak ikasten goza dezan.

Baliabide horiek nahi den eragina izan dezaten, hezitzaileek, imajinazio-lana egiteaz gain, materialak egokitu eta sekuentziatu beharko dituzte.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ikaskuntza-prozesuaren ostean ideia, kontzeptu edo egoera bati hurbiltzeko moduetan egiten diren eraldaketak identifikatu nahi dira ebaluazioarekin.

Xedeen eta lehen azaldutako gaitasunen betetze maila baloratzea da unitate didaktiko honetan jasotzen den ebaluazioaren helburua.

Ebaluazio-tresnak

- Balioespen objektiboa egiteko probak: ahozkoak nahiz idatzizkoak izan daitezke, eta sekzio bakoitza amaitzean egingo dira.
- Eguneroko lanaren behaketa: parte-hartzea eta argudiaketaren maila.
- Jarrera eta jokaera: asistentzia, puntueltasuna, interesa, inizatiba, materialaren erabilera egokia eta ikaskideekiko eta bizi-istorioekiko errespetua.

UNITATE DIDAKTIKOA
EREDUZKO OROIMENAK, GAINDITZE-ISTORIOAK:
INDARKERIARIK GABEKO JARDUERA, JARRERA ETA
BALIOAK

ASKATASUNEN MUGAKETA ETA ERREPRESIOA, INDARKERIA KOLEKTIBOA DAGOEN TESTUINGURUETAN

Gerra Zibila

Gaur egun, oraindik ez dago adostasun ofizialik Gerra Zibilaren biktima-kopuruaren inguruan, baina gerran 500.000 pertsona inguru hil zirela kalkulatu ohi da. Hor ez dira frontean bertan hildakoak bakarrik sartzen, borrokaldiak iraun bitartean atzealdean hil eta exekutatu zituzten pertsonak ere zenbatzen baitira.

Bortxaz hainbat erbeste-ibilbide jarraitu zituzten 450.000 pertsona gehitu behar zaizkio zifra horri; itsasoz, Hego Amerikara erbesteratu ziren batzuk, eta, lehorrean, Frantziara gehienak, baina baita Ingalaterrara eta Europako beste herrialde batzuetara ere. Ondoren, gerra amaitutakoan, 50.000 pertsona exekutatu zituztela kalkulaten da. Errepresio sistematikoaren ondorioz egin ziren exekuzio horiek, eta sumarioak edo paseoetan egindakoak izan ziren. Bestetik, goseak jota edo gaixotasunengatik hildako beste 120.000 pertsona gaineratu behar dira; preso zeuden asko kartzeletako baldintza eskasengatik hil ziren.

Errepresioa orokorra izan zen gerran. Funtsean, aurkako bandoarekin bat egiten zutelako susmoa pizten zuten guztiengan zentratu zen gizarte-jazarpena. Alderdi matxinatuan, sindikalistengana, politikari errepublikarregana eta ustez horiei babesa ematen zien edozein pertsonarengana bideratu zen errepresioa. Emakumeak ere errepresio haren biktimak izan ziren, eta ez borrokaldian aktibo parte hartu zutenak bakarrik: "gorri baten senide" izate hutsagatik umiliatu zituzten mantenuz edo lan egiteko aukerarik ez zuten emakume guztiak, alargunak eta umezurtzak. Beren senideei xantaia egiteko edo horiek zigortzeko atxilotzen zituzten, edo, are, "beren gizonei" eusten jakin ez izana leporatuta batzuetan. Hori dela-eta, emakume asko hainbat urtez eduki zituzten preso, akusazio zehatzik gabe.

Erbestea eta Bigarren Mundu Gerra

Espainiako Gerra Zibilaren amaieran, milaka espainiarrek gurutzatu zuten Frantziako muga (kalkulatzen denez, milioi erdi batek), faxismotik ihes egiteko asmoz, eta barneratze-esparruetara bidali zituzten. Milaka gizon batu zitzaizkien Langile Atzeritarren Konpainiei, eta Frantziako ipar-ekialdean gotorlekuak eraikitzeko ardura zuten horietako askok.

Nazien armadak aurrera egin zuen 1940an, eta, horren ondorioz, defentsa frantsesak gainezkatu egin ziren, eta espainiar asko geratu ziren nazien esku. Gobernu frankista, nazionalsozialismoaren aliatua izaki, ez zen pertsona horietaz arduratu, "espainiarrak ez ziren preso gorritzat" jotzen baitzituen. Horren ondorioz, espainiarrak nazien esparruetara deportatzen hasi ziren agintaritza naziak, 1940ko abuztuan. Urte horretan bertan, zazpi mila errepublikanotik gora deportatu zituzten nazien kontzentrazio-esparruetara.

Guztira, kalkulatzen denaren arabera, 10.000 espainiar sartu zituzten esparru hauetan: Mauthausen, Dachau, Buchenwald, Sachsenhausen, Bergen-Belsen, Ravensbrück, Treblinka, Auschwitz edo Neuengamme. Erdia baino gehiago hil ziren horietan. Bizirik atera zirenek aurre egin behar izan zieten Francoren gobernuak 1975era arte ezarri zituen arbuioari eta jazarpeneri, beren herrialdean bertan.

Diktadura

Errepresioak Gerra Zibila amaitu ondoren ere jarraitu zuen. Ezarritako erregimen frankistak errepresio-metodo ugari erabili zituen bere boterea berresteko. Lehen urteetan, ohikoak izan ziren exekuzioak, hilketak eta bortxazko desagerpenak. Kargu publikoen eta enpresetako langileen artean egin zituzten garbiketak eta purgak gaineratu behar zakizkio horri; izan ere, frankismotik hurbil zeudenak jarri zituzten lanpostu onenetan, eta isunak, ondasun-konfiskazioak edota bortxazko lanak ezarri besteei. Erregimen totalitarioek ideologia jakin bat ezartzeko xedez erabiltzen dituzten metodoak dira horiek guztiak.

lido berean, frankismoak ahalegin handia egin zuen bizitzako alderdi guztiak menderatzeko, eta, horretarako, ideologia nazional-katoliko nagusia adierazten ez zuen edozein adierazpen sozial eta kultural isilarazten edo zapaltzen zuen. Zentsuraren bidez eta komunikabideetan, literaturan, zineman edo antzerkian propaganda sartuta egin zuen hori. Bestalde, gerraostearen lehen urteetan, erregimenak modu sistematikoan jazarri zituen gaztelania ez ziren hizkuntza guztiak; euskara, adibidez.

Erljio-eremuan, erlijio katolikoa ezarri zuen estatuko erlijio ofizial modura. Emakumeen heziketak ideologia horren doktrina-printzipioak jarraitu zituen, eta, esate baterako, hezkuntza-eremuari dagokionez, ikasgelak sexuaren arabera banatzea ekarri zuen horrek, eta, gizarte-eremuan, emakumeak etxera modu hertsian sarraraztea. Horrekin, lan-merkatu sartzeko aukera ukatu zitzaizkien emakumeei, eta senarrarenganako, aitarenganako edo nebarenganako mendekotasun ekonomiko eta soziala edukitzera bultzatu zituzten.

Eta, jakina, erregimenak hartu zuen, oso-osorik, bizitza politikoa. Ofentsiba Nazional Sindikalistako Batzarren Espainiako Falangea (FET y de las JONS) izan zen erregimen frankistaren alderdi politiko bakarra; Espainian Gerra Zibilaren ondoren baimendu zen alderdi bakarra izan zen. Bestetik, Espainiako Erakunde Sindikala (OSE) izan zen, Sindikatu Bertikal izenez ezaguna, Espainian frankismoaren aldiaren egon zen sindikatu bakarra. Horrela ezarri ahal izan zuen Francok bere erregimena, eta karguari eutsi, hil arte.

XEDE ESPEZIFIKOAK

1. Indarkeriarik gabeko jarduerak eta jarrerak baloratzea errepresio gogorra eta indarkeria kolektiboa dauzkaten egoeretan.
2. Gerra Zibilean, diktadura frankistan eta Bigarren Mundu Gerran jazo ziren gertakarien gaineko ulermena areagotzea.
3. Gure iragan hurbilean giza eskubideetan egin ziren urraketen gaineko kontzientzia hartzea.
4. Modu kritikoan aztertzea indarkeria helburu sozial bat lortzeko mekanismo gisa erabiltzeak dauzkan ondorioak.
5. Empatia sentitzea beste pertsona batzuekin, berea ez den esanahitestingurua irudikatuz.
6. Indarkeria ez errepikatzearen inguruko konpromisoak garatzea.
7. Gure gizarte-errealitatean giza eskubideak ezartzeak duen garrantziaz jabetzea.

LEHENENGO BLOKEA - BARKAMENA

AZALPENA

Barkamena errepresioa eta indarkeria kolektiboa dauden testuinguruetan enpatia eskatzen duen balioztat hartzeari daude bideratuta bloke honetako jarduerak, bai eta pertsona guztiei –baita etsai nagusiei ere– giza duintasuna aitortzeari eta duintasun hori errespetatzeari bideratuta egon ere.

XEDEAK

- Landuko den une historikoan kokatzea eta Gerra Zibilean oinarrizko eskubideei egin ziztaizkien urraketek eragin zuten kaltea aitortzea.
- Oinarrizko eskubideak urratzen diren eta gizarte-errepresioa dagoen testuinguruetan barkamenak eta indarkeria ez errepikatzeko konpromisoak daukaten harremana ulertzea.

Materialak

- Internet
- Proiektorea
- [La Guerra Civil Española en 7 minutos](#) bideoaren esteka eta [Violencia colectiva](#) bideoaren esteka (Darío Páez).

Gazteentzat:

- [Alfredo Espinosa Oriveren bizitzari buruzko komikia](#)

Hezitzaileentzat lagungarria:

- [Alfredo Espinosa Oriveren istorioa](#)
- [Barkamenaren kontzeptualizazioa](#)

Lehenengo zatia: Euskal Herria Gerra Zibilean

Lehenengo zati honetan, Espainiako Gerra Zibila hasi zen une historikoan kokatu nahi dira gazteak, baita gerrak Euskal Herrian izan zituen eragina eta garapena ikus ditzatela ere.

Garapena

[La Guerra Civil Española en 7 minutos](#) bideoa jarriko dugu.

Mahai-inguru bat egin dezatela eskatuko zaie gazteei, galdera hauetatik abiatuta hitz egin dezaten bideoari buruz:

- Bideoan zerk eman dizue atentzioa?
- Zer dakizue Euskal Herrian Gerra Zibila bizitzeko moduari buruz?
- Ezagutzen duzue Gerra Zibilaren aldiak Euskal Herrian bizi izan ziren inor? Nolako izan zen bere esperientzia?

Ahalik eta hitzartze gehien bilduko dira, eta garai hartan bizi izan ziren testuinguru autoritario eta errepresiboa azpimarratuko da.

Bigarren zatia: Alfonso Espinosa Oriveren bizitza

Bloke honen bigarren zatian, Alfonso Espinosak Gerra Zibilean izan zuen bizitza ikusiko da, zer-nolako arriskua hartu zuen ikusi eta bizitzari eta askatasunari eman zien balioa dimentsiona dezaten gazteek.

Garapena

Pertsonaiaren bizitza [Alfredo Espinosa Oriveren istorioa](#) sartuko du hezitzaileak, etsaiei barkatzen dien eskutitza isilean gordeta, baina fusilatu aurretik Agirre lehendakariari gutun bat idazteko aukera eduki zuela aipatuz.

Bospasei pertsonako taldeak egin ditzatela eskatuko zaie gazteei, eta gutxi gorabehera 15 minututan idatz dezatela (orrialde erdia) Alfonso Espinosa

Orivek fusilatu baino lehen Agirre lehendakariari idatzi ahal izan zion eskutitza, non traizio egin ziotenak aipatzen dituen.

Taldeen erantzunak partekatuko dira, eta Alfonso Espinosak Agirre lehendakariari idatzi zion jatorrizko eskutitzarekin alderatuko dira horiek. Jatorrizkoan, Alfonso Espinosak barkamena eskatzen du errepublikaren etsaientzat:

"Historiak guztiok epaitzen gaituenean jakingo duzue sekulakoak egin genituela presoeri heriotza saihesteko eta gure sinesmenen aurkako ideia orori erabateko errespetua gordetzeko. Auzitegiek heriotza-zigorra ezartzen dionean norbaiti, indultua izango da beti beste mundutik emango dudan botoa, ama edo emaztea eta seme-alabak eduki ditzakeela uste baitut, eta errugabeek jasango dutela beti kondena. Eska iezaiezu nire kideei, nire izenean, eskatzen ari natzaizun hau, eta arren erregutzen dizut ez dezazula errepresaliarik hartu preso daukazunen aurka, nahikoa sufritu baitute, nik bezala. Utz ezazu aske oraintxe bertan prozesatuta ez dagoen oro."

Hirugarren zatia: Barkamena

Azken zati honetan, barkamenari beste esanahi bat eman diezaiotela bilatuko dugu; izan ere, eguneroko egoeretan erabiltzetik harago, hausnarketa sakona, enpatia eta pertsona guztien duintasunarekiko errespetua behar ditu.

Garapena

[Barkamenari buruzko komikiaren kopia](#) banatuko zaie gazteei, eta mahi-inguru bat eratu dezatela eskatuko zaie, Manuel Espinosak fusilatu aurretik izan zituen hausnarketek pizten dituzten askotariko iritziak komentatzeko.

Debaterako galderak:

- Zein iritzi duzue Manuel Espinosak hil aurretik idatzi zituen hausnarketan inguruan?

- Jarrera inuzentea eduki zuela uste duzue?
- Uste duzue erraza egin zitzaiola eskutitz hori idaztea?
- Zuen ustez, zerk behar du adore eta indar handiagoa: barkatzeak ala etsaien aurrean indarkeriaz erantzuteak?

Hezitzaileak gazteen erantzunak jasoko ditu, eta barkamenaren definizioarekin itxiko du eztabaida:

Barkamena erabaki bat da, jarrera bat, prozesu bat. Beste pertsona batzuei eskaintzen diegun eta guretzat onartzen dugun zerbait da. Barkamenak ez du jaso den eraso ahaztarazten, baina eraso hori ikuspegi ez hain pertsonaletik – zabalagotik– azaltzen eta ulertzen laguntzen du. Sufrimendua eta gaizkia bizitzaren zati saihestezinak direla pentsarazten digu; oreka eta barne-bakea lehengorazten laguntzen digu, eta munduari aukerarako leihoa irekitzen laguntzen du.

BIGARREN BLOKEA - ELKARTASUNA

AZALPENA

Florentino Goikoetxearen bizitzari aitortza egitera bideratuta dauden hainbat jarduerak osatzen dute unitate didaktiko honen bigarren blokea. Florentinok, elkartasunetik abiatuta, erregimen autoritarioen eta faxisten aurka jardun zuen, modu eredugarrian, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan.

XEDEAK

- Mugalariek Bigarren Mundu Gerran egin zuten lanaren garrantzia aitortzea eta talde horrek ehunka pertsonari ekarri zizkien onurak ezagutzea.
- Beren garapen-testuinguruan eta elkartasunean oinarritutako jarretatik abiatuta, bake-kultura eraikitzen laguntzeko dauzkaten aukeren inguruan hausnartzea.

Materialak

- Internet
- Proiektorea
- [La Red Comète en el País Vasco](#) bideoaren esteka.
- Abezedarioko letren txartelak ("A" letra bi aldiz egon behar da)

Gazteentzat:

- [Florentino Goikoetxearen bizitzari buruzko komikia](#)

Hezitzaileentzat lagungarria:

- [Florentino Goikoetxearen istorioa](#)
- [Elkartasunaren kontzeptualizazioa](#)

Lehenengo zatia: Comète Sarea Bigarren Mundu Gerran

Bloke honen lehenengo zatian, gazteak Bigarren Mundu Gerraren aldian kokatzea nahi da. Zehazki, Espainiaren eta Frantziaren arteko mugan kokatuko dira, mugaren bi aldeetako euskaldunen talde bat *Comète Sarearen* lanera atxiki baitzen han, naziek jazartzen zituzten gudari aliatuak mugaz haraindi eramateko xedez.

Garapena

[La Red Comète en el País Vasco](#) bideoa jarriko dugu.

Mahai-inguru bat egin dezatela eskatuko zaie gazteei, galdera hauetatik abiatuta hitz egin dezaten bideoari buruz:

- Bideoan zerk eman dizue atentzioa?
- Bazenekiten garai hartan kontrabandistak zeudela mugan?
- Zer uste duzue gertatuko zatekeela Guardia Zibilak edo Gestapok Frantzia mugalariak harrapatu izan balituzte?
- Zuen ustez, merezi zuen arrisku hura hartzea?
- Zergatik uste duzue mugalariak horrenbeste arriskatzen zirela?

Hezitzaileek gazteen galderei erantzungo diete, [hezitzaileentzako material lagungarriaren bidez](#).

Bigarren zatia: Florentino Goikoetxearen bizitza

Blokearen bigarren zatian, Florentino Goikoetxearen istorioan sakonduko da, mugalariaren ekintzen balioaren eta lan horiek ehunka pertsonaren bizitzetan izan zuen eraginaren inguruan hausnartzea eragiteko.

Hezitzaileak [Florentino Goikoetxearen bizitzari buruzko komikiaren](#) kopiak banatuko dizkie gazteei, eta elkarrekin ikusiko dituzte Florentinok Comète Sarera elkartu zenetik bizi izan zituen uneak, material lagungarrian (esteka) oinarrituta.

Hirugarren zatia: Elkartasuna

Blokearen hirugarren zatian, besteen zailtasunak eta premiak onartuta taldearen alde –eta ez norberaren onuraren alde– jarduteko eta sareak eratzeke balioztat hartuko da elkartasuna, eta horri buruzko hausnarketak eratzea izango da xedea.

Garapena

Jarduera: Ongizatearen zirkulua

- Aulkiekin borobil bat egin dezatela eskatuko zaie gazteei.
- Erdian, hezitzaileak txartelak jarriko ditu. Bakoitzak abezedarioaren letra bat edukiko du ("A" letrak bi txarteletan egon beharko du).
- Hiru zenbatutakoan **ONGIZATEA** hitza osatzeko letrak bila ditzatela esango zaie gazteei.
- Hitza osatzeko letraren bat aurkitzen dutenek **ongizatearen zirkulua** eratuko dute, elkarri eskuak emanda.
- Kanpoan geratu direnek modu sortzailean negoziatu ahalko dutela esango zaie zirkuluko kideei, edo beraiek konbentzitzen saiatu ahalko direla, taldera sartzen utz diezaieten. Hala ere, kontuan hartu beharko dute **ongizate mailak behera egingo duela pertsona-kopuruak gora egin ahala**.
- Taldekideek gutxienez pertsona bati sartzen uzten diotenean edo zirkulutik kanpo gutxienez bat geratzen denean amaituko da jarduera.

Galdera hauek gidatutako hausnarketarekin itxiko da jarduera:

- Nola sentitu dira hitza osatzeko letrak aurkitu dituztenak?
- Nola sentitu dira negoziazioaren bidez ongizatearen zirkulura sartu ahal izan direnak?
- Nola sentitu dira ongizatearen zirkulutik kanpo geratu direnak?
- Ongizatearen zirkuluko pertsonari: zergatik ez diete guztiei utzi zirkulura sartzen?

Hausnarketa

Jarraibideetan pertsona-kopuruak gora egin ahala ongizate mailak behera egingo duela esan den arren, pertsona batzuk ez dira eroso sentitzen batzuei mesede eta beste batzuei kalte egiten dieten arau edo ezarpen autoritarioak jarraitzean. Gure bizitzetan elkartasunetik abiatuta jokatzeko badugu, arau horiek alboratu ditzakegu, eta talde gisa jardun, osotasuna eratuz, onura ez dadin banakakoa edo gutxi batzuentzat bakarrik izan; hau da, onura talde osoarentzat izan dadin.

* Hezitzaileak, egoki ikusten badu, Florentino Goikoetxearen adibidea har dezake ideia hori irudikatzen.

Elkartasunaren definizioarekin itxiko da jarduerak:

Elkartasuna balio pertsonala da, zeinarekin komunitate bateko kideek osotasunean jarduteko gaitasuna daukaten. Kideek beren artean interesak eta premiak partekatzen dituztelako gertatzen da hori, elkar lotzen dituzten lokarri sozialei esker. Elkartasuna errespetuan eta enpatian oinarritzen da, beste pertsonak gure laguntza edo babesa behar duela ulertarazten baitigute.

HIRUGARREN BLOKEA - ERRESILIENTZIA

AZALPENA

Unitate didaktiko honen hirugarren blokean, muturreko zaugarritasun- eta indarkeria-egoeretan pertsonok bizirik irauteko eta aurrera egiteko gara dezakegun gaitasunari buruz hausnar dezatela nahi da.

Bloke honetan, Maria Juana Gesalaga Etxaideren eta Jose Ignacio de Sola Tamamesen istorioak landuko dira, bai indarkeriaren kaltearen handitasunari buruz pentsatzeko, bai pertsonok ezbeharrari aurre egiteko dugun gaitasunari buruz hausnartzeko, eta gazteen gizarte-errealitateetara eramango ditugu hausnarketa horiek.

XEDEAK

- Erresilientzia-gaitasuna ezbeharrari aurre egiteko ezaugarritzat hartzea eta hori aitortzea eta baloratzea.

- Bizitzan egoera zaileri aurre egiteko har daitezkeen tresnei buruz hausnartzea.

Materialak

- Zatar-papera
- Errotuladoreak
- Post-it-ak

Gazteentzat:

- [Maria Juana Guesalaga Etxaideren bizitzari buruzko komikia](#)
- [Jose Ignacio de Sola Tamamesen bizitzari buruzko komikia](#)

Hezitzaileentzat lagungarria:

- [Maria Juana Guesalaga Etxaideren istorioa](#)

- [Erresilientziaren kontzeptualizazioa](#)

Lehenengo zatia: gerra eta erbestea

Blokearen lehenengo zatian, errepublikari eta askotariko ideologiari fidelak izan ziren milaka euskaldunek (hala nola sozialistek, anarkistek eta nazionalistek), zeinak Gerra Zibilean eta Bigarren Mundu Gerran erbesteratu zituzten, bizi izan zuten testuinguru soziala –indarkeria kolektiboz josia– ulertzea izango da helburua.

Garapena

Jarduera hasteko, [Esclavos del Tercer Reich](#) bideoa ikusiko dugu.

Mahai-inguru bat egin dezatela eskatuko zaie gazteei, galdera hauetatik abiatuta hitz egin dezaten bideoari buruz:

- Bideoan zerk eman dizue atentzioa?
- Zuen ustez, zer ezaugarri komun zeuzkaten erbesteratutako euskaldunek?
- Ezagutzen duzue kontzentrazio-esparru batean egon den euskaldun baten istoriorik?

Azalpena:

TESTUINGURUA: EUSKALDUNAK KONTZENTRAZIO ESPARRUETARA DEPORTATU ZITUZTENEKOA

Iparaldeko frontea erorita zegoela, eta, gero, II. errepublikaren porrotarekin eta Gerra Zibilaren amaierarekin, milioi erdi espainiarrek gurutzatu zituzten Pirinioak, diktadura frankistaren errepresiotik ihesi. Besteren artean, errepublikari eta askotariko ideologiari fidelak izan ziren milaka euskaldun (hala nola sozialistak, anarkistak eta nazionalistak) Frantzian geratu ziren, mendebaldeko demokrazien laguntzarekin beren herrira itzuli eta erregimen berria suntsitzeko itzaropenez. Alabaina, beren ametsak zapuztu zituzten handik gutxira European jazo ziren gertakariak. Frantziako gobernuaren harrera hotza izan zen; izan ere, milaka erbesteratu bidali zituen barneratze-esparruetara; adibidez, Perpignon-eko Argelès-surMer esparrura eta Zuberoatik hurbil dagoen Biarnoko Gurs

esparrura, zoritxarrez ezaguna hori, non 1939ko maiatzean 6.555 euskaldun zenbatu ziren. Gutxira, Frantziako gobernuak hustu egin zituen barneratze-esparru horiek, eta bere armadaren zerbitzura jarri zituen gudari ohi errepublikarrak. Gerra saihestezin baten atarian zeuden, eta esku-lana behar zuen bere defentsa-lerroak indartzeko.

Deportazioa

1940tik aurrera, hiruki urdinarekin markatu zituzten, herrigabeen adierazlea baitzen hori, eta Europako geografian sakabanatutako kontzentrazio-esparru hauetara eraman zituzten: Dachau, Buchenwald, Flossenbürg, Neuengamme, Ravensbrück emakumeentzako esparrua edo Mauthausen, jatorri espainiar edo euskalduna zuten deportatu gehienak jaso zituen esparrua. 150 euskaldun inguru igaro ziren kontzentrazio-esparru horietatik, oso baldintza lazgarrietan. Erbesteratu zituzten euskaldunen erdiak hil ziren. Beste batzuk askatu eta gutxira hil ziren.

Bigarren zatia: Maria Juana Guesalaga Etxaide eta Jose Ignacio de Sola Tamamesen istorioa

Bloke honen bigarren zatian, kontzentrazio-esparruetatik bizirik atera ziren bi pertsonaren bizitza ezagutzea nahi da, argiago irudikatu ahal izan dezaten bizipen horrek biktimei ekarri zien mina.

Garapena

Bi talde osatuko dira: A taldea eta B taldea. Talde bakoitzari zatar-paper zati bat eta errotuladoreak emango zaizkio.

A taldeari, Maria Juana Guesalagaren bizitzari buruzko komikia emango zaio, eta, B taldeari, Jose Ignacio de Sola Tamamesen bizitzari buruzkoa.

Denbora-marra bat marraztu dezatela esango zaie gazteei, eta pertsonaia horien bizitza markatu zuten uneak adieraz ditzatela.

A taldeak Maria Juana Guesalagaren istorioa aurkeztuko dio B taldeari, eta B taldeak Jose Ignacio de Sola Tamamesena aurkeztuko dio A taldeari.

Hezitzaileek gazteen aurkezpena osatuko dute, [Maria Juana](#) eta [José Ignacio](#)ren hezitzaileentzako material lagungarriaren bidez.

Hirugarren zatia: erresilientzia eta elkartasuna

Blokearen azken zatian, pertsonak indarkeria-egoerei indar handiagoz eustea eragiten duten elementuak identifikatu nahi dira.


Garapena

“[La resiliencia](#)” (Darío Páez) bideoa ikusiko dugu.

Mahai-inguru bat osatuko da, eta galdera hauek egingo dira:

- Zer iritzi duzue Maria Juanaren bizitzaren inguruan?
- Zer iritzi duzue Jose Ignacioren bizitzaren inguruan?
- Uste duzue gizonen eta emakumeen sufrimendua ezberdina izan zela kontzentrazio-esparruetan?
- Zuen ustean, pertsona guztiok dugu indarkeria-egoera latzei modu berean aurre egiteko gaitasun berbera?

Pertsona batek ezbeharren aurrean erakuts ditzakeen indarra edo ahultasuna ikusarazteko, erkaketa egingo da urakanei eta ekaitzei aurre hobeto edo okerrago egitea ahalbidetzen duten etxeko material gogor edo hauskorrekin. Vanistenda-el-en etxetxoaren eredian oinarritutako egitura hau marraztuko da arbelean:



Post-it-etan galdera hauen erantzunak idatz ditzatela eskatuko zaie gazteei, eta etxeko sekzioetan koka ditzatela:

- "Lurzorua" sekzioa: zein dira bizitzan aurrera egin ahal izateko behar ditugun oinarrizko gauzak? (etxebizitza, elikagaiak, arropa).
- "Zimenduak" sekzioa: Norekin sor ditzakegu laguntasun-, laguntza- eta konfiantza-harremanak? (familia, lagunak).
- "Lehenengo solairua" sekzioa: zer helburuk edo asmok ematen diote zentzua pertsonen bizitzari? (erlijioa, konpromiso politiko edo humanitarioa, besteak beste).
- "Bigarren solairua" sekzioa: zer gaitasunek edo ezaugarriak laguntzen diete pertsonen bizitza hobeto eramaten? (frustrazioarekiko tolerantzia, autoestimua, trebetasun sozialak, umore-sena...)
- "Sabaia" sekzioa: nola sentitzen zarete esperientzia berriei aurre egitean? Eroso egoten zarete aurretik aurreikusi ezin daitezkeen egoeretan edo egoera berrietan?

Gazteek etxeko sekzioak beren ideiekin betetzen dituztenean, galdera hauetatik abiatutako hausnarketa garatuko da, konfiantzan, leialtasunean eta elkartzasunean oinarritutako gizarte-sare indartsuen sarea azpimarratuz:

- Zeren arabera izango da etxearen egitura gogorra edo ahula? Gure bizitzetan zer egin dezakegu etxeak indartzeko?
- Nola eraiki dezakegu une latzetan euskarria eta ongizatea emango dizkigun familia- eta gizarte-sare indartsua?

Hezitzaileak gazteen ideiak jasoko ditu, eta erresilientziaren definizioarekin itxiko du eztabaida:

"Material batek itxuraldatzeko eta jatorrizko egitura berreskuratzeko duen gaitasuna da erresilientzia, edo gainkarga handiei hautsi gabe eusteko gaitasuna.

Pertsonok geure buruari kalte egin gabe aurkakotasunak gainditzeko eta horiei aurre egiteko dugun gaitasuna da.

Kontzeptua ongi adierazten duen metafora bat dago:

Ibai baten emaria izugarri hazten denean, ibai horretan dauden ihiak tolestu egiten dira, eta, gero, urek ohiko maila berreskuratzen dutenean, hasierarako jarrerara itzultzen dira."

LAUGARREN BLOKEA – DESOBEDIENTZIA ZIBILA

AZALPENA

Unitate didaktiko honen laugarren eta azken blokeak desobedientzia zibilaren gaia jorratzen du. Indarkeriari indarkeriarik erabili gabe aurre egiteko modutzat hartzen da desobedientzia zibila; hau da, indarkeriari modu adimentsuago, sortzaileago eta eraikitzaileagoetan erantzuteko modua da, giza eskubideen aitortzan eta errespetuan eta lege autoritarioen arbuioan oinarritzen dena.

XEDEAK

- Giza eskubideen errespetuaren eta bermearen alde jarduteko eta giza duintasuna urratzen duten lege eta sistema autoritarioei aurka egiteko modutzat hartzea desobedientzia zibila.
- Gaur egun beren eskubideak aldarrikatzeko xedez desobedientzia zibila erabiltzen duten kolektibo sozialen beste jarduera batzuk identifikatzea.

Materialak

- Internet
- Proiektorea
- Bideo honetarako esteka: [Persecución cultural durante el franquismo. El nacimiento de las ikastolas](#)
- “[La Noviolencia](#)” eta “[Desobediencia Civil](#)” (Jesús Castañar) bideoak (esteka)
- Rosa Parks eta Mahatma Ghandiren bizitzak jasotzen dituzten fitxak gutun-azal berean.

Gazteentzat:

- [Maria Dolores Goyaren bizitzari buruzko komikia](#).
- **Hezitzaileentzat lagungarria:**

- [Maria Dolores Goyaren istorioa](#)
- [Desobedientzia zibilaren kontzeptualizazioa](#)

Lehenengo zatia: diktadura frankista eta kultura-errepresioa

Garapena

Jarduera hasteko, [Persecución cultural durante el franquismo. El nacimiento de las ikastolas](#) bideoa ikusiko dugu.

Mahai-inguru bat egin dezatela eskatuko zaie gazteei, galdera hauetatik abiatuta hitz egin dezaten bideoari buruz:

- Irudika dezakezue zuen bizitzetako gune sozialetan euskaraz hitz egin ahal ez izatea?
- Baduzue familian edo lagunartean euskaraz hitz egiteagatik zigorren bat edo errepresioa jaso duen inor?
- Zer balio dauka euskarak euskal kulturean?
- Zuen ustez, pertsona berberak izango ginateke gure bizitzan euskararik edukiko ez bagenu?

Bigarren zatia: Maria Dolores Goyaren istorioa

Maria Dolores Goyaren bizitzari buruzko komikiaren kopia banatuko zaie gazteei. Hezitzaileak, [material lagungarrian](#) oinarrituta, andereñoaren istorioa kontatuko du, gazteek [komikian](#) jarraitzeko moduan.

Hirugarren zatia: desobedientzia zibila

Jesús Castañarren "[Noviolencia](#)" eta "[Desobediencia Civil](#)" bideoak jarriko dira. Batetik, desobedientzia zibila indarkeriarik gabeko ekintza dela azpimarratuko da, eta, bestetik, pertsonen ustez giza duintasuna urratzen duten lege autoritarioei egiten diela aurre. Ekiteko modu horiek zigorra edo errepresioa jaso dezakete, baina lehentasuna ematen diete ongizateari eta giza eskubideen erabilerari.

Mahai-inguruan, galdera hauek egingo dira eztabaidarako:

- Zuen ustez, Maria Doloresek diktadurak ezarritako legeak desobeditzean hartu zuen arriskuak merezi zuen?
- Bere lanari babesa ematen zioten gurasoen laguntzarik gabe zer bait lortuko zukeela uste duzue?
- Ezagutzen duzue, gizarteko hainbat taldek giza eskubideak eduki eta horiek erabili ahal izan ditzaten, desobeditzearekin aurrerapausoak egin dituen beste pertsonaiarik historian?

Andereñoen desobedientzia zibilak euskal kultura sendotzen lagundu zuen bezalaxe, erregimen eta lege autoritarioei aurre egin zieten beste pertsona batzuek giza eskubideei eta demokraziari ateak ireki zizkietela azalduko da.

Hautazkoa: Hezitzaileak Gandhiren edo Rosa Parks-en adibideak eman ditzake, fitxa hauekin:

MAHATMA GANDHI



Pentsalari eta politikari indiarra izan zen. 1869ko urriaren 2an jaio zen, eta 1948ko urtarrilaren 30ean hil. Mahatma Gandhi (arima handia) ezizenarekin ezagutzen da.

Bizitza soila eduki zuen; berak egiten zituen bere arropak, eta begetariano nabarmena izan zen, izaki bizidunei kalterik ez egiteko printzipio etikoak gidatuta.

1918tik aurrera, Indiako mugimendu nazionalistaren buru izan zen. Borrokatzeko metodo berriak ezarri zituen (protesta baketsuak eta gose-grebak), eta, bere programetan, borroka armatua baztertzeko: indarkeriarik eza aldarrikatzen zuen nagusitasun britainiarrari eusteko bitarteko gisa.

Hainbat aldiz espetxeratu zuten, eta berehala bihurtu zen heroi nazionala.

1931n, Londoneko Biltzarrean parte hartu zuen, eta, bertan, Indiaren independentzia eskatu zuen.

Independentzia lortu ondoren, Indiako gizartea aldatzen saiatu zen Gandhi; adibidez, kasta baxuenak (shudrá-k edo 'esklaboak', pariak edo 'ukiezinak' eta mlecha-k edo 'barbaroak') gizarteratzen eta landa-eremuak garatzen saiatu zen.

Indiak independentzia lortu ondoren sortu ziren erlijio-gatazkek gaitzetsi zituen, eta musulmanak babestu zituen lurralde indiarrean. Horren ondorioz, Nathuram Godse fanatiko integrista indiarrek hil zuen, 1948ko urtarrilaren 30ean, 78 urte zituela.

ROSA PARKS



(Alabama, 1913) Estatu Batuetako eskubide zibilen defendatzailea. Zurgin baten eta irakasle baten alaba zen, eta Montgomery Industrial School for Girls industria-eskolan eta Alabama State Teachers College irakasle-eskolan ikasi zuen. Ikasketak amaitu ondoren, Raymond Parksekin ezkondu zen.

Garai hartan, segregazioa (hau da, pertsonak arrazagatik edo erlijioagatik banatzea) nagusi zen oraindik hegoaldeko estatu gehienetan. Segregazionismoari aurre egiteko asmo irmoz, beltzen ongizatea sustatzeko elkarte baten aholkulari egin zen 1949an. National Association for the Advancement of Colored People (NAACP) zen elkartearen izena.

1955ean, mundu mailan ezagun egin zuen gertaera jazo zen; gutxitan eduki ditu hain ekintza txikiak hain ondorio handiak. Ipar Amerikan eskubideberdintasunaren aldeko borrokan kokatu behar da ekintza hori. Jostun umil beltz honek uko egin zion autobusean bere eserlekua bidaiari zuri bati uzteari. Gidariak poliziarri deitu zion, eta atxilotu egin zuten. Era berean, hamalau dolarreko isuna ezarri zioten. Egitate horrek agerian jarri zuen, berriro ere, beltzek jasaten zuten segregazioa; izan ere, debekatuta zeukaten zuriarentzat bakarrik ziren igerilekuetara, eskoletara, jatetxeetara eta zerbitzu publiko ugaritara sartzea.

Autobuseko gertakariaren lehenengo ondorioa Montgomery Improvement Association elkartearen sortzea izan zen. Gutxiengo beltzaren eskubide zibila babestea zen elkartearen xedea. Martin Luther King izan zen elkarteko presidentea. Elkarrekin boikota antolatu zuen Montgomeryko autobusen aurka, eta izugarritzko arrakasta eduki zuen: 382 egun iraun zituen, eta Montgomeryko afro-amerikarren borroka mundu guztian ezagutarazten lagundu zuen. Ondorioz, garraio publikoetan segregazioa abolitu behar izan zuen Ipar Amerikako gobernuak.

1957an, Parks senar-emazteak Detroitera (Michigan) joan ziren bizitzera, eta, han, eskubide zibilen aldeko borrokan jarraitu zuen.